

Pasarteak-Fragmentos



“Pasarteak-Fragmentos” lekuak dira, liluratu egiten nauten natura-guneak. Behin eta berriro bueltatzen naiz toki hauetara, sorginduta, erakarrita, apartako edertasuna gordetzen duten txokoetara: Urbasa, Aizkorri mendilerroa, Bardeak, Riglos, Yesa, Pirineoak, Dolomitak...

Argazkilaritza txikitatik izan da nire pasioa: 16 urte nituen, prestatutako kamera bat lepotik zintzilik eta Pirinioak nire aurrean. Orduetik, ez dut mendi irteerarik egiten kamerarik gabe. Argazki kamera nire eskuaren luzakina da.

Nire prestakuntza autodidakta da: argazkilaritzari buruzko ehundaka liburu pasa dira nire eskuetatik teknika ikasteko, oinarri sendo bat hartzeko asmoarekin. Ez dakit argazkilaria jaio edo egiten den, ziur dakitena gogor lan egin behar dela da, oso gogor eta epe luzean emaitza onak lortu ahal izateko.

Beti natura nire lanaren oinarri moduan erabilia, oso garrantzitsuak izan dira nire lagun argazkilarimendizaleak.



Haiekin milaka ordu, kilometro eta esperientziak eduki ditut; azken finean horrek finkatzen du norberaren izaera eta baita egindako

lanarena ere.

Argazki bat ateratzen ari garenean sentitzen duguna irudi baten bitartez islatzea ez da erreza izaten. Pagadi-baso batean lainopean dagoen misterioa, elur-ekaitzak astintzen gauenean sentitzen dugun hotza edo pareta batetik zintzilik gaudenean beldurra, argazki batean irudikatzekeo zailak dira, ezinezkoak.

Arrisku-kirolak biziago sentiarazten gaituztela azaltzea ere zaila da. Eta azken urteetan nire argazkiak bide horretatik joan dira: mendiko kirol-abentura.